


Noaia!!

www.noaia.com



Liburutegia Sutegin denetik,
bezero kopuruak gora egin du



Alejandro Tapia margolaria,
etengabeko bilakaeran

Margotu egunak



Datorren urtean, egunek kolorea izango dute Usurbilen: horia, grisa, marroia, urdina eta berdea. Zure esku dago egun bakoitzari zein kolore dagokion erabakitzea. Zatoz bileretara eta eman zure iritzia. **Atez ateko bilketa antolatzeko behar zaitugu.**



PARTE-HARTZE PROZESUAREN EGUTEGIA:
bi bilera-erronda egingo dira auzo bakoitzeko.



	PLENARIOA	KAXKOA	LANDA EREMUA	KOMERTZIO ETA POLIGONOAK	SANTUENE	ZUBIETA	AGINAGA
LEHENENGO BILERA-ERRONDA	urriaren 20an, astelehena, 18:30ean	urriaren 21ean, asteartea, 18:30ean	urriaren 22an, asteazkena, 18:30ean	urriaren 23an, osteguna, 18:30ean	urriaren 24an, ostirala, 18:30ean	urriaren 25ean, larunbata, 17:00etan	urriaren 27an, astelehena, 18:30ean
BIGARREN BILERA-ERRONDA	azaroaren 3an, astelehena, 18:30ean	azaroaren 4an, asteartea, 18:30ean	azaroaren 5ean, asteazkena, 18:30ean	azaroaren 6an, osteguna, 18:30ean	azaroaren 7an, ostirala, 18:30ean	azaroaren 8an, larunbata, 17:00etan	azaroaren 10ean, astelehena, 18:30ean



EUSKARAREN MARATOIA 7



LASARTE-ORIAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Korritzeko modukoa!

www.euskararenmaratoia.com

Albistea iruditan !!

Atez ateko bilketaren aurkezpena

Hondakinen atez ateko bilketa sistemaren nondik norakoak jendarean aurkezten hasia da Udala. Astelehenean, Usurbil eta Zubietako udal ordezkariak, beste herri batzuetakoak, herritarrak... bildu ziren udalbatza aretoan. Ekimenaren xehetasunen berri eman zuten eta bertaratu zirenen galderak erantzun eta zalantzak argitzen saiatu ziren.

Bilketa sistema berria martxan jarri aurretik, hainbat bilkura burutuko dira. Herri mailako lehen bilera irekia hilaren 20an astelehena Sutegin egingo da, 18:30etik aurrera. Ahalik eta parte hartze zabalena izateko, herriko talde eta elkartei dei berezia egiten zaie udal gobernu taldetik, bilgune bakoitzetik ordezkari bat kultur etxera bertara dadin.



UDALBATZA ARETOA, ASTELEHENEAN EGINDAKO BILKURAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

BADATOR ATEZ ATEKO BILKETA **6. OR.**

ZIKLOMOTORREK AZTERKETA PASA BEHAR **8. OR.**

IKASTARO UGARI AGINAGAN **9. OR.**

LIBURUTEGIEN EGUNA **10. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERRAZKIN
lgettsortza S.L.
 Tel.: 649 435 470
 Faxa: 943 372 679
 K./ Nagusia 47. Behea A.
 20170 USURBIL

ALIPROX
 Kale Nagusia 10
 ☎ 943 361 182
 USURBIL

LATAILLADE
ITURGINTZA
 GASA
 BEROKUNTZA
 MANTENIMENDUA ETA
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
 Arizatitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 886 021



AITOR LANDALUZE

Orwellen 1984 Usurbilen

Etxez etxeko zabor biltzaile eskua droia iritsi da etxera. Beltzez jantzita eta latexko eskularruekin nire zabor poto desberdinak arakatu dituzte. Isilik elementu bakoitza begiratu dute, dena ondo sailkatuta zegoela ikusi eta oraingoz isuna ekidin dut. Nire txerrijana ondo behatu dute, hori dela eta jakin dute zeintzuk diren nire gusto kulinarioak, jabetu dira ere, klinex piloagatik eta ez ohiko laranja azal kopuruagatik gripeak bisitatu nauela aste honetan. Ja, konpresek ere aditzera eman die aste honetan hilekoak ere bisitatu nauela eta pila kopuru altua nuenez badakite ere gauean lo gaizki egin dudala eta irratia insomnia gaizkitzen lagundu didala. Beraiek noski ez didate hori aditzera eman, baina beren ordenagailu portatiblean informazio hori guztia eta seguraski gehiago ere jaso eta ordenadore zentral kuxkuxeroa bideratuko dute. Gero suposatzen dut, bileran batean nire arriskua sistemaren kontra baloratuko dutela. Bai kontrol soziala txerrijanaren bidez. Txorakeri bat dirudi, paranoikoa erabat, hala ziruedien ere Orwellen 1984 liburuan eta dagoeneko horretara iritsi ote garen susmoa badut. Nola engainatu gaituzten ezkertiar abertzale hauek, errauskailua ez jartzearen kontrol soziala sartu zaigu txerrijanaren bidez. Akabo gure intimitatea, askatasunaren oinarrietako bat. Eskerrik asko Usurbilgo EA nire begiak irikitzeagatik!

Kontrol horretatik ihes egiteko zaborrik ez sortzea era-

baki dut eta sortzera behartuta nagoena beste modu batera desagertaraztera. Izkutuan ondoko herri libreetara eramaten dut orain nire txerrijana, Lasarte, Donostia... Han inongo sailkapenik gabe dena elkarrekin kontainer batean bota dezaket, a ze plazerra. Hori bai askatasuna! Plastikoa, beira, kartoia, pilak, berdin du. Dena poltsa berean! Kontainer batean! Gora askatasuna!

Hori bai, berdin du bestelako kontrol soziala. Liburutegitik zer liburu eramaten ditudanen informazioa, nere errenta aitortpena, nire zorra amaigabea Kutxarekin, nire positiboak kontrol polizialekin edo OTAn gaizki aparkatutako isunak, nire bizitza laborala, bozkatzeko dudan edo ez, telefono deiak, bisitatzen ditudan presoak, txartel bidezko erosketak.... Guzti hau azken finean ez da txerri jana, ez du usainik uzten tapa irekita utzita edo utzi gabe ezta? Baina horren guztiaren kontrola non eta uste dut beste batzuen artean Diputazioko langileen eskuetan egon daitekela, beren ordenagailuetan gordea, klasifikatuta agian? Noski "protección de datos" delako legeak babestuta. Beraien konfiatu behar dugu? Nork ziurtatzen dit google-n bestaldean inor ez dagoela nire bilaketagaiak pilatzen eta interpretatzen? Izpirituz eta ekintzaz garbiak al dira informazio hori kudeatzeko aukera dutenak? Non dago Big Brother-a? Usurbilgo udaletxean, edo piska bat gorago?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

© 663 08 76 71 • USURBIL

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
Kamiseten inprimaketa
PSU
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKESTAK • FOROAK • POSTA

www.noaual.com
USURBILGO ATARIA

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSEITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalegar
Telf: 606 37 21 05

Badator atez ateko bilketa sistema

Usurbil, osasuna atez ate lema-pean aurkeztu zen urriaren 14an, prentsaurrean, abian jarri nahi den hondakinen atez ateko gaikako bilketa sistema berria. Ekitaldian bildu ziren alkate Xabier Mikel Errekondo, San Markos Mankomunitateko lehendakari Ricardo Ortega eta lehendakariorde eta udal ordezkari Imanol Azpiroz.

Aurkezpen kanpainaren aldarriarekin bat etorrita, hondakinen gaiari lotuta alkateak argi adierazi zuen zein den usur-bildarren nahia; herri garbi eta osasuntsua izatea. Horregatik, erronka handia izan arren, herritarrei hondakinen arazoa haienganatu eta abiatzear den parte hartze prozesuan inplikatzera deitu zituen, atez ateko bilketa egitasmoa aurkezteko eskaini zuten prentsaurrekoan. Sistema berriarekin hondakin kopurua %80raino jaitsi nahi da. Eta bide beretik, Errekondok gogorarazi bezala, helburu gorenera ailegatu, zaborra zero izatera igarotzea.

IMANOL AZPIROZ

“Atez atekoak erakutsiko du errausketak ez duela ez buru ezta hankarik ere”

Esperientzia berri honetan udalerrri pilotu bihurtzeko prest egoteagatik Udalak erakutsitako jarrera txalotu nahi izan zuen bestalde, Ricardo Ortegak. Mankomunitateko lehendakariak bi era-



DATORREN ASTEAN, AUZOZ AUZO AURKEZTUKO DA ATEZ ATEKO SISTEMA.

ONDO BIDEAN, URTARRILEAN SISTEMA BERRIA JARRIKO DA MARTXAN.

kundeak elkarlanean arituko direla adierazi zuen; egitasmo berriaren finantzazioaren zati bat Mankomunitateak bere gain hartuko du. Bestalde, laguntza gehiago lortzeko Foru Aldundiarekin gestioak egiten ari direla jakinarazi zuen. Usurbil herri eredugarri bihurtzeko bidean izanik zorte ona opa eta deialdia egin zien Mankomunitateko gainerako bederatzi udalerriei, Usurbilen abiatuko den prozesua “arretaz jarrai dezaten”. Bide beretik, Imanol Azpirozek sistema berria San Markosko eremu osora zabaltzeko nahia agertu zuen. “Atez atekoak erakutsiko du, errausketak ez duela ez buru ezta hankarik ere”, adierazi zuen.

Aurreproiektua diseinatu dutenez, zenbait xehetasun aurreratu zituzten.

Asmoa, sistema berriarekin urtarrilean hastea litzateke. Hondakinen bilketa eta tratamendua ez da berdina izango zonalde guztietan. Herri gunean adibidez, hondakin zatiak etxe atariko gune egokitan utzi eta kamioi batek jasoko lituzke finkatutako ordutegi eta maiztasunean. Landa eremuan aldiz, ahal den neurrian autokonpostajea bultzatu nahi da. Zubietan Garbigune txiki bat ere kokatuko dutela adierazi zuten.

Aipatutakoak eragileen aurreikuspenak dira. Datorren astelehenean abian jarriko den herritarrei zuzendutako parte hartze prozesuarekin Udalak gauzatu nahi duen atez ateko bilketa sistemaren proiektuari itxura edo forma emango baitzaio.

Auzoz auzoko aurkezpenak

Datozen asteetan, bi bilera erronda egingo dira, auzoz auzo.

Urriak 20, astelehena 18:30: Aurkezpen bilkura Sutegin.

Urriak 21, asteartea, 18:30: Kaxkoko aurkezpena Sutegin.

Urriak 22, asteazkena, 18:30: Landa eremuko aurkezpena Sutegin.

Urriak 23, osteguna, 18:30: Komertzio eta poligonoetako aurkezpena Sutegin.

Urriak 24, ostirala, 18:30: Santueneko aurkezpena, auzo elkarteko egoitzan.

Urriak 25, larunbata 17:00: Zubietako aurkezpena, frontoi atzeko lokalean.

Urriak 27, astelehena 18:30: Aginagako aurkezpena, bertako ludotekan.

Okerrak zuzenduz

Pasa den urriaren 10eko astekarrian, astebete lehenago izandako osoko ohiko bilkuraren berri eman zuen NOAUA!k. Irailean izandako zenbait atentatu gaitzesteko PSE-EEk aurkeztutako mozioa onartu zela adierazi zen orriotan, baina ez zen horrela izan. PSE-EE, EAJ-PNV, eta EAko zinegotziak alde agertu baziren ere, mozioak ez zuen onartua izateko behar besteko babesik jaso.

Atez ateko bilketa sistema berrira egokitzeke, hiri hondakinen udal ordenantza aldatuko da

Abian jarri nahi den hiri hondakinen bilketa eta tratamendu sistema berrirantz, beste aurrerapauso bat eman du udalbatzak; gai horri lotuta orain arte indarrean zen udal ordenantza aldatzea. Gobernu taldeak proposatutako testuak gehiengo osoaren behin behineko onspena jaso zuen pasa den astean.

Orain arte indarrean egon den udal ordenantzak hondakinak sailkatu gabe, nahastuta eta eduki ontzietan egitea aurreikusten zuen. Atez ateko bilketa sistema berriaren ezaugarriak jasotzen ez dituenek, egungo udal ordenantza aldatzea proposatu zen azken ezohiko osoko bilkuran, pasa den urriaren 10ean.

Udal gobernu taldeak, Aralarrek eta PSE-EEk babestuta onartu zen. EAJ-PNVko zinegotzia ez zen pleno aretoan egon. EAKo ordezkariak aurka bozkatu zuten, abian jarri nahi den bilketa sistema berria ez baitute uste eraginkorra izango denik. Bestalde, udal ordenantzan hutsune dezente sumatzen dituztela adierazi zuen Salome Portu zinegotziak; eskaini nahi den udal zerbitzuaren moduaren eta maiztasunari dago-kionean adibidez.

Lehenago egin bezala, udal gobernu taldetik gonbita luzatu zieten EAKo ordezkariak, gutxi barru zabalduko den parte hartze prozesuarekin bat egin dezaten. Alkate Xabier Mikel Errekondok hondakinena alderdien gainetik dagoen arazo bat dela gogorarazi zuen, guztioi dagokiguna eta egin beharreko ahalegina osasunaren aldekoa dela gogorarazi zuen.

Aralarretik sistema berriarekiko adostasuna agertu zuten. Lontxo Zubiriak, herritarren konbentzimendutik eta gauzak ondo egiten ahaleginduta hondakinak gutxitzeko helburua lortuko dela adierazi zuen.

Orain, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea zabalitzen da. Denbora tarte horretan, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betikoz onartutzat joko da.



URRIAREN 10EAN EZ-OHIKO UDALBATZA PLENOA BILDU ZEN, ATEZ ATEKO BILKETARI BURUZKO AZTERGAIA AZTERTZEKO XEDEZ.

2008ko aurrekontuaren

3. kreditu aldaketa hasieraz onartu da

Atez ateko bilketa sistema berria martxan jartzeko baliabideetara, Agerialde eraikuntzako hobetze lanetara edota herriko merkataritza garatu asmoz egin nahi den azterketara bideratuko dira, azken ezohiko osoko bilkuran gehiengo osoz behin behinean onartu ziren 17 gastu partidak berriak. Aurtengo aurrekontuari lotutako hirugarren kreditu aldaketa da.

Diru partida batzuk gainditu direla ikusita, eta aurretik datozen fakturei aurre egin asmoz, behin behingoz onartu berri da aurtengo aurrekontuaren hirugarren kreditu aldaketa. Udal gobernu taldeak, Aralarrek, eta PSE-EEko udal ordezkariak babestu zuten proposamena. EAKo zinegotziek aurka bozkatu zuten. EAJ-PNVkoa ez zegoen udalbatza aretoan.

Hona hemen zertara bideratuko diren, 17 gastu partidetako batzuk,

guztira 9.257.223,26 euro: Añarbeko Mankomunitateari egin beharreko transferentziak hornitzeko; San Markos Mankomunitatearen bidez zaborrak beste zabortegetara eramateko; konpostatze gunea eta Garbitxikia martxan jartzeko, baita atez ateko bilketa sistema berria abiarazteko baliabideak eskuratzeko ere. Olarriondo eta Sekaña eremuetako urbanizazio lanen exekuzioa kontratatze baliatuko da beste diru partidetako bat; Agerialdeko eraikuntzan hobekuntza lanak egin eta larrialdietarako eskaile-rarako, eta haren ondoan, maisu etxe izenez ezagunak diren etxebizitza sozialak eraberritzeko. Azkenik, herriko merkataritza garatu asmoz egin nahi den ikerketarako ere bideratuko da beste diru partida bat.

Udal ordezkarien gehiengoaren babes-a jaso ostean, azken ezohiko osoko bilkuran aurkeztutako proposamena jendaurrean erakutsiko da orain.

Herritarren laguntzaz zehaztuko da zabor bilketa zer modutan egingo den

Hasieraz onartua izan den udal ordenantza egokituan zehazten denez, herritarren laguntzaz erabakiko du Udalak bilketa zerbitzua zer modutan gauzatu; ordutegiak, bilketa maiztasunak... Zonaldeka hartu nahi dira erabakiak.

Sistema berria martxan jartzen den unetik aurrera, hiri hondakinek bi kudeatzaile izango dituzte; herritarrak eta Udala. Norberak sortutako hondakinak etxe atarian utzi eta langileek jaso artean, erantzukizuna herritarrena izango da. Hortik aurrerakoa, Udalarena. Beraz, guztion arteko elkarlana ezinbestekoa izango da.

Udal ordenantza berrian zehazten denez, etxebizitzetan zein denda, eskola, eraikin publiko, industria gune edota zerbitzuetan sortzen diren hondakinak gaika bilduko dira.

HONDAKIN MOTA	BILKETA
Organikoa	-Sukaldean prestatutako zein gordinak diren hondakinak; jakiez zikindutako paperezko ezpainzapiak; zurezkoak ez diren lorategiko hondakinak.
Papera eta kartoia	-Garbituta utzi beharko dira.
Ontziki arinak	-Metalezko latak, beirazko ontzikien metalezko tapak, plastiko eta tetra-brick ontzikiak. Garbituta utzi beharko dira.
Beirazko ontzikiak	-Beirazko ontzikiez gain, ezingo dira utzi zera-mika hondakinak, beirazko kopak, beira laua.
Erreusa	-Eskobatzeko hautsa; hautsitako platerak, kati-luak edota ispiluak; zigarrokinak, pixoihalak,...

BESTE BILKETAK	
Bilketa bereziak	-Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa. Garbigune zerbitzua: doakoa, etxeetako noizbehinkako hondakinak jasotzeko; pneumatikoak, etxe-tresna elektrikoak, pilak, etxeko hondakin arriskutsuak, kimaketak, bolumen handikoak...
Ekoizle handiak (enpresak)	Edukiontzi homologatuetan, hondakinak isurtzeko arriskutik at. Garbitu eta mantentzeaz erabiltzailea arduratuko da. -Hondakinen ezaugarri edo kopuruak bilketa zerbitzua asko eragozten badu, Udalak bilketa zerbitzutik kanpo utz ditzake enpresa handiak. Ondorioz, kasu horietan, haiek izango dira sortzen duten hondakinen kudeatzaileak.

Bilketa, gaika eta atez ate

Zabor ontziak desagertu, hondakinak gaika bildu eta egunero, aldezturik finkatutako modu, ordu eta lekuetan hondakin atal bakoitza etxe atarian uztea dira, ordenantza berriak jasotzen dituen ezaugarri nagusiak. Hondakinen atez ateko bilketa sistema berriarekin beira, ontziak, papera, kartoia, oinetako eta jantziak...

bilduko dira. Eta noski, baita hondakinen zatirik handiena ere; organikoa.

Bilketa sistema berriaren prozedura ere jasotzen du hasieraz aldatzea onartu den udal ordenantzak. Herritar bakoitzak sortutako hondakinak gaika sailkatu eta zati bakoitza etxe atarian utzi beharko du. Ontzi batean, eta aldezturik finkatutako egun eta ordu

zehatzetan.

Udal langileak ontzi bakoitza hartu eta bildutakoa ibilgailura eramateaz arduratuko dira. Ibilgailuan jasotakoa tratamendu guneetara edo transferentzia zentroetara eraman eta bertan utziko da, tratatzeko. Bestalde, herritarrek izango dituzten ontziak aldika garbituko dira.

Ogia erostean, Arzaken afaltzeko aukera

Urriaren 5ean, ogia erosteko poltsa bereziak banatu zituzten herriko okindegiek, doan. San Markos Mankomunitatearen kanpaina hau beste 9 udalerrietan ere jarri da martxan. Ekimen honek, ordea, jarraipena izango du: egunero poltsa horrekin ogia erosten dutenek Arzak jatetxean afaltzeko zozketan hartuko dute parte.

“Zurekin egunero”. Hala du izena kanpainak. Helburu nagusia: egunero ogia saltzean erabiltzen diren plastikozko poltsen eta paperezko bilgarrien erabilera gutxitzea da.

Orain, zozketa berezi bat jarri dute martxan. San Markos Mankomunitateak banatu dituen poltsa horiekin dendara joaten garen bakoitzean, txartel bat jasoko dugu. Txartel hori bete eta dendetan bereziki kanpaina honentzat jarri diren postontzietan sartu behar da. Saria ez da nolanahikoa: bi pertsonentzat afora Arzak jatetxean.

Txartel saritua banatzen duen dendak ere sari berdina jasoko du. Zozketak notario aurrean egingo dira azaroaren 4an eta abenduaren 4an.

Foru Aldundiaren laguntzarekin

San Markos Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan ogia saltzen duten dendei zuzendurik dago kanpaina: Astigarraga, Donostia, Erreterria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Guztira, 284 denda dira parte hartuko dutenak.

Kanpaina honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.



POSTONTZI HAUETAN SARTU
BEHAR DIRA ZOZKETARAKO TXARTELAK.

Nola parte hartu behar da zozketan?

1. Ogia erostera joaterakoan, oihalezko poltsa eraman.
2. Ogia erosi eta txartela jasoko duzu. Zure datuekin bete.
3. Dendako postontzira bota txartela.
4. Zozketa bi egingo dira:
Lehena, azaroaren 4an
Bigarrena, abenduaren 4an.

Ziklomotorren azterketa teknikoa

herrian bertan egiteko aukera, urriaren 28an eta 30ean

Lege berriaren arabera, hiru Lurte baino gehiago dituzten ziklomotorrek derrigorrez egin behar dute ITV-IAT azterketa. Bi egunetan izango da azterketa tekniko hori egiteko aukera Usurbilen: urriaren 28an eta 30ean. Baina aurretik, txanda eskatu behar da Udaltzaingora deituz, 943 361 112.

Udaberrian hainbat egunez izan ziren ITV-IATeko teknikariak Askatasuna plazan. Udazkenarekin berriz itzuliko dira gure artera. Bi egun hauetan: urriaren 28an eta urriaren 30ean. Zeintzuk dira azterketa pasa behar dituzten ziklomotorrak? 50 z.k. baino gutxiago dituen eta 45 k.o. abiadura gainditzen ez

duten bi gurpileko ibilgailuek derri gorrez pasa behar dute azterketa.

Inora joan gabe, herrian bertan egin ahal izango da azterketa tekniko hori. IAT-ITV delako estazio mugikor bat hurbilduko baita Askatasuna plazara, asteazkeneko azoka egiten den aterpera.

Bi egunez: urriaren 28an eta urriaren 30ean

Azterketa egiteko, ordutegi hau jarri da: goizeko 9:00etatik 14:45ak arte. Baina azterketa pasa baino lehen, zita eskatu behar da. Udaltzaingora deitu, 943 361 112, goizeko 9:00etatik 20:00etara, eta telefonoz emango zaizu motorraren



ZIKLOMOTOR BAT AZTERKETA
PASATZEN, ASKATASUNA PLAZAN.

azterketa egiteko txanda.

22 euro ordaindu behar dira

Kontuan izan, 22 euro ordaindu behar direla azterketa teknikoa pasa ahal izateko.

Ikastaro ugari antolatu ditu Aginagako Antxomolantxa elkarteak

Ikasturte berria hastarekin batera, Aginagako Antxomolantxa elkarteak ludoteka zerbitzua eta lau ikastaro antolatu ditu. Edonork parte har dezake antolatzaileek prestatutako eskaintzan, parte hartzea irekia da beraz. Baina lehentasuna Aginagakoek izango dute.

Izena emateko, aukeratu den ikastaro horri dagokion kuota ordaindu behar da, ikastaro hasieran bere osotasunean edota bi zatitan, orain eta urtarrean. Kuoten ordainketa honako kontu korrante zenbaki honetan egin behar da: 3035 0140 33 1400023932. Aipatu tramitea egiterakoan, norbere izena eta aukeratutako ikastaroa



INFORMATIKA ETA INTERNET
IKASTAROAK ESKAINIKO DIRA,
BESTEAK BESTE.

zehaztu.

Informazio eta argibide gehiagorako 646 039 656 telefonora deitu edota antxomolantxa@euskalerrria.org posta elektronikora e-mail bat bidali.

Ikasturte honetan Aginagan eskainiko dena

IKASTAROAK	IRAUPENA	ADINA	ORDUTEGIA	PREZIOAK
INFORMATIKA	Urria-abendua	Helduentzat	14:30-16:00	50 euro
INTERNET	Urria-abendua asteartetan	Helduentzat	14:30-16:00 19:00-20:30	50 euro
ANTZERKI TAILERRA	Urria-abendua ostiraletan	3 urtetik aurrera	17:30-19:00	15 euro
LUDOTEKA	Urria-maiatz larunbatetan	0-14 urte. 4 urte artekoak helduekin joan behar	10:00 -13:00	
INGELESA	Urria-abendua astearte eta ostegunetan.	Helduentzat	19:00-20:00	28 euro hileko

Ipuinak eta emozio hezkuntza aztertuko dituzte Udarregi ikastolan

Udarregi ikastolako Hitz-Aho guraso elkarteak hitzaldi berri bat antolatu du. Bertan, gai hau landuko da: "Ipuinak eta emozio hezkuntza". Horretarako, Juan Carlos Alonso psikologoak gai hau jorrazteko hainbat argibide emango ditu.

Hitzaldia urriaren 23an izango da, osteguna, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta 18:30ean amaitu.

Hautzaindegia zerbitzua

Hitzaldiak irauten duen denboran, hautzaindegia zerbitzua egongo da. Seme-alaben hezkuntzarako baliagarria izango delakoan, Hitz-Aho guraso elkarteak partehartzera gonbidatu nahi ditu gurasoak.

Auto-estima tailerra antolatu da

Auto-estima tailerra eskainiko da doan AEK-Etumeta euskaltegiko lokalean, urriko azken astean hasi eta hiru astez. Usurbildar orok parte hartu dezake, Einean Guraso Eskolak eta Udalak antolatu duten ikastaroan.

Bi talde osatzeko aukera dago. Astean bi egunetan eskainiko dira saioak eta bi ordutegi aukeran; goizez, 9:30-11:30 artean, eta eguerdian, 14:30-16:30 artean. Izena emateko epea irekita egongo da ikastaroa hasi arte, honako telefono zenbakian: 615 006 535.

Bitxigintza tailerra

Bestalde, telefono zenbaki berdina deitu behar du, jada abian den eta Einean Guraso Eskolak antolatu duen bitxigintza ikastaroan parte hartu nahi duenak. Oraindik, lekua bada bertan.

Ziortza Gazte Elkartearen deialdia

Ziortza Gazte Elkarteak begiraleak lanean hasteko prest dira. Laster hasiko dira ikasturte berriarekin. DBH lehen maila egiten hasi direnek, lehenengo saioa datorren astean izango dute. Urriaren 17an ostirala, iluntzeko 20:00etan Ziortzako geletan.

Urriaren 18an kinto afari ugari

1951 urtean jaioetako kintoak Sekaño erretegiaren elkartuko dira. Izena eman nahi duenak, Sekaño erretegiara deitu dezala: 943 362 773.

1955eko kintoak, aldiz, Antxeta jatetxean. Izena emateko: 943 361 469 (Maribel) / 943 366 039 (Maribi).

1956 urtean jaioetako kinto afaria, ordea, Patrín egingo da. Izen emateko: 943 36 11 26 (Blanca).

Sutegin dagoenetik, liburutegiaren erabiltzaile kopurua asko handitu da

Bi ipuin kontaketa saio antolatu ditu Sutegi Udal Liburutegiak datozen urriaren 23 eta 24rako. Urtean zehar gehiago ere eskaini izan dira, baina oraingoak datorren ostiralean ospatuko den Liburutegien Nazioarteko Eguna atarian izango dira. Eta liburutegia hiru urte betetzear denean. Gune berria zabaldu zenetik erabiltzaile kopurua asko igo da, mailegu kopurua berriz bikoiztu. Liburutegia bizirik dagoela dio bertako langile Bakartxo Iguaranek.

NOAUA! Sutegi zabaldu zenetik ia hiru urte igaro direnean, nabari da lehengo liburutegitik berrirako aldea?

Bakartxo Iguaran. Herri erdigunean egoteak asko markatu du. Lehen, aukeratu egin behar zenuen liburutegira joatea. Orain jada eskura gelditzen da. Horrek bere alde oso ona du, jende asko gerturatu baita liburutegira.

BAKARTXO IGUARAN

“Erabiltzaileekin batera, mailegu kopurua izugarri igo da. Bikoiztu eta gehiago egin da”

N. Erabiltzaile kopurua hazi da ordutik hona?

B. I. Izugarri. Han ginenean, 1.000 erabiltzaile inguru zeuden. Asko igo da kopurua, izugarri.

N. Urriaren 24an, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatuko da. Ospatzeko arrazoirik bai, irakurzaletasunari begira?

B. I. Erabiltzaileekin batera, mailegu kopurua izugarri igo da. Liburutegi zaharretik hona etorri ginenean, maileguen batz bestekoa eguneko 35 doku-



AZAROAN HIRU URTE BETEKO DITU SUTEGIK. ORDUTIK, UDAL LIBURUTEGIAREN ERABILERAK GORA EGIN DU NABARMEN.

mentu ingurukoa zen. Momentu hone-tan, 75etik gertu egongo litzateke. Bikoiztu eta gehiago egin da. Jende gehiago gerturatu da, jende desberdinak deskubritu du liburutegia. Interesa agertzen du eta irakurtzen da, jendeak esku artean liburuak eramaten ditu. Bestalde, Liburutegien Eguna ez dugu bereziki ospatzen. Aurten hala ere, aitzakia horrekin egun horretan eta bezperan ipuin kontaketa saio bana antolatu da.

N. Liburuekin batera, beste euskarri batzuk nagusitzen ari dira?

B. I. Liburuak eta ikus-entzunezkoak; musika, film edota dokumentalen DVD eta CDak. Haurren kasuan batez ere, horretarako joera dute. Asko mailegatzten dira. Pelikula asko ekarri da, ez oso komertzialak, kalitatezkoak bilatzen ditugu. Donostiako Zinemaldiaren aitzakiarekin jarri genuen erakusketa, egunero bete behar izaten genuen. Hustu egiten baitzen. Ostiraletan oso nabarmena da zenbat jende etortzen den bideo bila. Hala ere, bideo denda

batekin ez dugu lehiatzen, ez baititugu estreinatu berriak diren filmak.

N. Aspaldiko eskaerei erantzunez, ordutegia ere zabaldu zen?

B. I. Liburutegi zaharra arratsaldero, asteazken goizetan eta hamabost egunean behin larunbat goizetan zabaltzen zen. Hona etorri ginenean ordutegi berdinarekin hasi ginen. Eskaera nabarmena zen ordea. Azkenean iaz jarri zen martxan. Jendea pixkanaka joan da deskubritzen. Oraindik bakarren batek galdetzen du ia goizez ere irekitzen ote dugun. Goizetakoa ere bizitza handia hartzen ari da. Batzuk egunkaria irakurtzera datoz, asko mailegua egitera. Oso erantzun ona izan du. Larunbatetan ere jende asko ibiltzen da.

N. Liburutegien sarean ere bazaude-te.

B. I. Liburutegia irekitzearekin bat egin zuen. Orain hemen eskura daitekeen txartelak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako beste udal liburutegietarako balio du, Bilbon eta Donostian izan

ezik. Oso aberasgarria da eta mugikor-tasuna ematen du. Eskatutakoa ez dugunean, edota nahi den dokumentua mailegatua badago, katalogoan begiratzeko laguntzen diegu. Etxetik ere mailegatzeko aukera dago.

BAKARTXO IGUARAN

“Ikasturte hasieran,
haur liburutegian
irakurketa gunea sortu
dugu, aldizkari berriekin”

Bestalde, orain gutxi liburutegien arteko mailegu zerbitzu berria jarri da martxan. Guk eskatutako dokumentu bat hemen ez badugu, astero Usurbildik pasatzen den mezularitza zerbitzu bat dugu. Eskatutako liburua hona ekartzen dute.

N. Aholkatzea eta orientatzea, herri-tarren beste eskaeretako bat izango da?

B. I. Herri txikia izateak badu eragina. Harremana gertukoa da, gehienok ezagutzen gara. Gehienbat, helduek eskatzen dituzte aholkuak. Baita batzuetan gaztetxoek eta haurren gura-soek ere.

N. Epe motzera bestelako nobe-derik izango al da?

B. I. Liburutegia bizirik dagoela sumatzen da. Ikasturte hasieran, haur liburutegian irakurketa gunea sortu dugu, aldizkari berriekin. Bi mahai irakurketarako erreserbatuta daude. Liburutegi guztiko errotulazioa ere berrituko da.

Bestalde, urriaren erdialdetik formazio lan bat egin nahi dugu haurrekin. Heziketa ziklo bakoitzeko lehen ikasturteko ikasleak etorriko dira. Bisita gidatuak prestatu dizkiegu, adin bakoitzera egokituta. Asmoa, liburutegia etxeko lanekin identifikatzetik haratago joatea da eta nik uste lortzen ari garela. Guk ez dugu debekatzeko, baina ez dugu ezta bultzatu nahi ere.

Ipuin kontalariak

Liburutegien Nazioarteko Egunean

Liburutegien Nazioarteko Eguna Lospatuko da datorren astean, urriaren 24an. Sutegin, ekitaldi hauek antolatu dira:

URRIAK 23 OSTEGUNA

18:00 Pello Añorga ipuin kontalaria udal liburutegian, 4 urteko haurrentzat.

URRIAK 24 OSTIRALA

18:00 Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria udal liburutegian, 5 urteko haurrentzat.



DATORREN ASTEAN ARITUKO DA
SUTEGIN PELLO AÑORGA KONTALARIA.

Liburu estimatuenak

Zinearen eragina

Liburu askotatik pantaila handira jauzia eman duten istorioak ez dira gutxi. Estreinaldiak izugarri igo ohi dute jatorrizko euskarrian kaleratu ohi diren edukien irakurzaletasuna. Azken aldian aipagarriak diren bi adibide daude; “El niño con el pijama de rayas” eta “Cometas en el cielo” izenburuak.

Euskal literatura

Gazteen ipuin liburu uzta handia eta aipagarria, aurtun: Uxue Alberdi, Katixa Agirre, Eider Rodriguez, Karmele Jaio.

Irakurrienetakoak izan diren liburu-arten, hauexek aipatu dizkigute Suteginiko kudeatzaileek:

Xabier Montoia: “Euskal Hiria sutan”.

Juan Kruz Igerabide: “Hauts bihurtu zineten”.

Anjel Lertxundi: “Thes bete”.

Bernardo Atxaga: “Soinujolearen semea”.

Jokin Muñoz: “Antzararen bidea”.

Sutegi, larunbat goizetan ere irekita

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 / 16:00-19:30.

Larunbatetan: 10:00-13:00.

Telefono zenbakia: 943 360 692.

bibl.usurbil@udal.gipuzkoa.net

Liburutegia sarean: www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua

Liburutegiko txartela

Txartela: mailegatzeko soilik behar da txartela. Liburutegian inskripzio orri bat doan bete eta kito.

Otar-Goxo
Elizkarguak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

URDAINTZI S.L.
orainsuntza

943 36 71 264
649 435 475
649 435 476

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

“Gordeta ditudanak”, Alejandro Tapiaren ibilbide osoa Aginagan ikusgai


Ibilbide luzeko une desberdinetako lanak, haietako asko ezezagunak, lehen aldiz erakusgai. Guztira sei hamarkadetako margolaran bilduko ditu Alejandro Tapiak Aginagako eliza zaharrean. Igande honetan zabalduko da erakusketa, margolaria omendua izango den egun berean. Antxomolantxa elkarteak antolatuta, Tapiak egindako eskultura inauguratuko da, herri bazkaria izango da gero, eta arratsaldean, omenaldi ekitaldia.

NOAUA! “Gordean ditudanak” ize-neko erakusketan inoiz ikusi gabeko margolaran jarriko dituzu erakusgai?

Alejandro Tapia. Denetarik dago. Batzuk lehenago jarritakoak dira eta beste batzuk ez. Ehunka koadro ditut salduak, mila akaso. Baina ibilbide guztiko garai desberdinetako lanak ditudanez, tartean orain arte gordeta egon diren asko, horregatik jarri nion izenburu hori. Ez baitira ezagutzen.

N. Erakusketan zeure margolari ibilbidea ikusi ahal izango da, artista baten eboluzioa. Zerk markatu du eboluzio hori?

A. T. Hasieran oso koadro figuratibokak ditut. Inpresionismoaren eragina nabari da. Gero, ez dakit asko ohartuko diren zer mugimendu dauden, baina badago eboluzio bat hasieratik azkeneko hamar urteotara. Margolari guztiei gertatzen zaie, logikoa da. 62 urte biltzen baitira erakusketan, hamabost urterekin hasi eta orain arte. Hor derrigor behar du eboluzio bat. Lehengo pintoreetan ere eboluzioa ikusten da. Batzuk apurtzaileak izan dira, horregatik ez ziren



AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN IPINIKO DITUEN KOADRO BATZUK
LEHEN ALDIZ IZANGO DIRA PUBLIKOAREN AURREAN IKUSGAI.

ulertu ere egin, 40 urte beranduagora arte. Mugikorra izan behar du arteak. Badira artistak hasi bezala bukatzen dutenak. Hori ez dut ulertzen.

ALEJANDRO TAPIA

“Eskola garaitik beti eman izan dit paisaiak halako zirrara bat”

N. Paisaiak nagusitzen dira zeure margolanetan?

A. T. Paisaia izan da gehien landu dudana gaia. Eskola garaitik beti eman izan dit paisaiak halako zirrara bat. Paisaietan ere eboluzio bat izan dut. Baina figura asko ere egin ditut. Denbora bat izan nuen, paisaiak eta

figurak nahasten nituena, figurak paisaia barruan sartuta. Urrutitik margotzen hasi arren, gerora pixkanaka objektuetara bertaratzen hasi nintzen. Orain oster, paisaia alderantz noa.

N. Natura eta Aginaga. Aginagako natura, margotzeko zeure txokoa al da?

A. T. Askok, erriro alde hori. Itsasoa baino askoz gustukoagoa dut ibaia. Ibaiko islatu horiek. Artista bati kokatzen den tokiak eragiten dio, norbera bizi eta bilatzen ibili den lekuak.

N. 62 urteko ibilbidearen ostean, gelditzen al zaizu bide berririk esploratzeko?

A. T. Beti dago zeregina. Mila urte bizi beharko banu ere, zeregina izango genuke. Bilatzeko gogo hori beti izaten da, ez da sekula bukatzen.

J. ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra
687 858 390
climata_t@yahoo.es

N. Zeure margolari biografia nola hasi zen?

